

Eibarko Martxoaren 8ko lantaldea

Zer da?

Orain dela urteak sortutako lantaldea da, oraindik ere eraikuntza prozesuan dagoena. Orain arte, lantaldearen eginkizuna martxoaren 8ko egitaraua kolektiboki antolatzea izan da.

Helburuak

Helburu nagusia da, egun horren bueltan, emakumeen aukera eta eskubide berdintasuna eta feminismoa aintzat hartzea eta aitortzea Eibarren, modu eta jarduera ezberdinen bidez, dagoen diskriminazio egoera eraldatzeko.

Helburu zehatzak:

- Eibarko emakumeen presentzia, protagonismoa, egindako ekarpenak... ikusgai egiten duten akzioak/jarduerak abiaraztea.
- Eibarko emakumeen ahalduntze kolektiboa bultzatzen duten akzioak/jarduerak egitea.
- Emakumeen eskubideen alde lan egiten duten elkarte/erakundeen arteko sarea sortzea eta sendotzea, herri mailan.
- Emakumeen diskriminazio egoera agerian uztea eta diskriminazio hori zuzentzeko jarduerak egitea.

Osaketa eta parte-hartzea

Lantaldean parte-hartzeko modu ezberdinak planteatzen dira. Barrura begira, bileretan eta antolakuntzan modu iraunkorrean parte hartzen duten norbanako eta eragileak gaur gaurkoz (Astixa animazio zerbitzuak, Arrate Kultur Elkartea, ...Eta Kitto! Euskara Elkartea, Pagatxa emakumeen elkartea, Eibarko Klub Deportiboa, Amakin Eibar, emakume independenteak, Euskara Saila eta Berdintasun Unitatea). Eta, kanpora begira, martxoaren 8aren inguruan jardueraren bat antolatzen duten elkarte/erakundeek, beraien ekimenak egitarauan txertatzeko koordinazio baten bitartez.

Talde irekia da, kanpora proiektatzen dena. Emakumeen eskubideen alde lan egiten duten Eibarko talde/erakunde eta norbanakoak lantaldean parte-hartzea du helburu, ikuspegi eraldatzailea txertatuz. Kanpotik bidalitako proposamenak kontuan hartuko dira eta lantaldeak onarpeneko eskubidea izango du.

Parte hartzen duten talde batzuk mistoak izan daitezke, baina lantaldean feminismoaren subjektu politikoaren partaidetza bermatuko da.

Funtzionamendua

Berdintasun Zerbitzua-Andretxeak bilerak dinamizatu eta antolatuko ditu, beti modu parte-hartzaile eta kolektibo batetik. Erabakiak lantaldean hartuko dira.

Kanpora begira, lantaldetik antolatutako jarduerak irekiak eta mistoak izan daitezke, beti ere emakumeen protagonismoa eta partaidetza bermatuz.

Horrekin lotuta, enkarguak egiterakoan, hizlariak ekartzerakoan, besteak beste, emakumeen kontratazioa lehentasunezkoa izango da.

Urtero, lantaldeak gai bat adostu du egitarauaren ardatz bezala. Orain arte landutako gaiak hurrengoak izan dira: artea, industria, alternatiben sorkuntza, emakume nagusiak, gela propioak eta ahalduentzeko espazioak, zaintza lanak eta bizitza duinak.

2026ko gaia **Aliantza feministak** da.

Ekainean, ebaluazio-bileran gai proposamenak jasoko dira. Irailetik aurrera gai ezberdinen kontrastea egingo da eta urria – azaroan hurrengo urteko gaia erabakiko da.

Erabakitako gai nagusiarekin lantaldeak egitarauko proposamenak jaso eta aztertuko ditu urtarrilera arte. Hortik aurrerako edo bestelako gaiak egitarau nagusian sartu ez arren txertatzeko modua aztertuko litzateke.

Martxoaren 8an ez du jarduerarik egingo. Izan ere, egun horretan lantaldeak udalerriko talde feministek antolatutako programazioarekin bat egingo du.

Lantaldeak hizkuntza eta irudiak modu inklusiboan erabiliko ditu. Euskara komunikazio-hizkuntza izango da eta hizkuntza-eskubideak bermatuko ditu.

Kronograma

Ekainean	gai proposamenak jasoko dira.
Irailetik urria - azarora	gai ezberdinen kontrastea egingo da.
Urria - azaroan	hurrengo urteko gaia erabakiko da.
Urtarrilean	egitarauko jarduera proposamenak jasoko dira.
Otsailean	bilerak sarriago egingo dira, programazioa hurbilago dagoelako.
Udaberrian	egitarauaren ebaluazio bilera egingo da.

Hilabetero astelehenak 16:00etan mantenduko ditugu lantaldearen bileretarako.

Oharra: bileren data eta ordua alda daitezke parte hartzen duten eragileen disponibilitatearen arabera, ahalik eta inklusiboena izan dadin.

Komunikazio-plana

1) Kanpora begira:

- ❖ Jardueren eta programazioaren helburuen zabalkundea: denon artean prentsa-dossiera egingo dugu egingo diren jarduerak adieraziz eta egitaraua eta aukeratutako gaiaren helburua eta zergatia azalduz. Eta, zein eragileei bidaliko diegun ere lantaldean erabakiko da. Denok mezu eta informazio berdina zabaltzeko.
- ❖ Lantaldean nork, zer esan, zein komunikabidetan ... adostuko da, komunikazio funtzioak orekatuak izateko. Halaber, jarduerak eta prentsaurrekoa egiteko espazioak erabakiko dira, baita egingo den erabilera eta banaketa ere, genero diskriminazioa egoeran eragiten baitu, besteak beste.

- ❖ Prentsaurrekoan kazetaria emakumea izatea edota genero ikuspegia kontuan izatea lehenetsi eta eskatuko da, ekintza positiboa bezalaⁱ.
- ❖ Prentsa-dossierra eta prentsaurrekoa ikuspegi feminista batetik eta euskaraz izango dira.
- ❖ Kanpora begira emaileko zerrenda bat egingo da informazioa helarazi talde/elkarte edo pertsonen kontaktuekin.
- ❖ Lantaldearen jardueraren ezagutzarako dokumentua zabaldu eta ekarpenak jasotzeko deialdia egiten dugu.

2) Barrura begira:

- ❖ Bilerak: lantaldeak antolatzeke eta erabakiak hartzeko tresnak izango dira.
- ❖ Taldeko whatsapp: bileren kudeaketarako, eta lantaldeko eragileek osatuko dute.
- ❖ Aktak: bileretan adostu dena jasotzeko baliagarriak izango dira eta emailez bidaliko zaizkio lantaldeko parte-hartzaileei.
- ❖ Informazioa jasotzeko emaileko zerrenda bat egingo da eskatzen dutenekin.

ⁱ Ekintza positiboek eragin onuragarria dute emakumeek lan-merkatuan duten egoera eta posizioa, gizonen eta emakumeen arteko aukera-berdintasuna bultzatzeko.